

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREEN
ESPEZIALIZAZIORAKO KONTRATAZIOA EGITEKO
DEIALDIA
(2020)**

ATARIKOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerketa-zentro nagusia den aldetik, kalitateko ikerketa-jarduerak egiteko erantzukizuna dauka. Testuinguru honetan, unibertsitateko ikertaldeek ezin diete beti aurre egin ikerkuntza estrategikoaren erronkei, dauzkaten baliabideak batzuetan ez baitira behar adinakoak. Helburu honen garatzeko, deialdi honen bidez, doktoreak espezializatu eta lan munduan txertatu nahi dira, unibertsitateko ikerketa taldeetarako aldi baterako kontratazio neurriak sustatuta.

Ikuspegi horretatik abiatuta, eta UPV/EHUren Ikerketa Planean aurreikusitako ekintzei jarraituta, deialdi honen helburua jakintza arlo guztietako doktoreen ikertzeko gaitasuna hobetzea da, ikerkuntza jardueren kopuruak eta kalitateak gora egin dezaten.

Helburu honetarako 1.000.000 € bideratuko da, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Bikaintasuneko Ikerkuntzarako Kontratu Programaren barruan "Ikertzaileei (PBI eta ID) ikertaldeetara sar daitezen eskaini beharreko prestakuntzarako kontratu programak sustatzea" esleitutako finantzaketari lotutako aurrekontu kredituari dagozkionak. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izateen arabera. Zenbateko osoa deialdi honen babesean eta hura indarrean dagoen artean formalizatuko diren kontratuen kostua ordaintzeko erabiliko da.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen bidez, espezializazioa eta laneratze profesionala sustatu nahi dira, ikertzaile doktoreak aldi baterako kontratatuz eta unibertsitateko ikertaldeetan (aurrerantzean UIT) sartuz, jakintza arlo zientifikoa edozein dela.

Egin beharreko lana, nagusiki, ikerketa lana izango da xede duena ikertzaileak prestakuntza maila eta espezializazio profesional handia lortzea esperientzia profesionala finkatze aldera.

Deialdi honen ondorioetarako ulertuko da UIT izango direla UPV/EHUren deialdietako batean ikertalde gisa finantzatu izan direnak edo euskal unibertsitate sistemaren ikertalde deialdietan A edo B mota gisa aitortutakoak, 2020an aktibo izanez gero.

2. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

2.1. Gehien dela, 20 kontratutarako deia egiten da, ikerkuntzaren arlo guztietara irekita, hauetarik gutxienez bi ikerketaren bost arloetako bakoitzerako bina kontratu gordeta (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak). Bigarren kontratuaren erreserba egiteko dagokion arloan eskarien %10 egon beharko du gutxienez eta 65 puntutik gora izan beharko ditu 13. oinarriko ebaluazio-irizpideen arabera. Kontratu etako bat gordeko da %33ko ezgaitasuna edo handiagoa luketen pertsonentzat, aurreko oinarrian ezarritako lana garatu ahal izateko gaitasuna egiaztatzen badute.

2.2. Deialdi honen lortutako lan kontratua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen (aurrerantzean ZTBL) 22. artikulua arautuko du eta arduraldi osokoa izango da.

2.3. Kontratututako pertsona UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, bertan lan egingo duenari.

2.4. Sinatu beharreko kontratuaren iraunaldia 12 hilabetetako izanen da, berori formalizatuko deneko datatik hasita.

Hamabi hilabeteren luzapena planteatu ahal izango da, nahikoa aurrekontu zuzkidura egongo balitz eta, edonola ere, kontratatutako ikertzaileak, kontratua indarrean egon aurreko hamabi hilabeteetan zehar egindako bi ekarpenen ekoizpen zientifikoa egiaztatuko balu, Ikerkuntza Ebaluatzeko Espainiako Batzordeak (CNEAI) zein bere jakintza arlorako ezarritako irizpideekin bat etorritik (Ebaluazio arlo bakoitzerako onartutako irizpide espezifikokoak argitaratu eman zituen CNEAIren 2019ko azaroaren 12ko erabakia. 2019ko azaroaren 26ko 284. zbkiko EBO). Argitalpenen kasuan, aski izango da aldizkariak adierazitako onespina. Inola ere ezingo dira erabili 3.4 oinarrian adierazitako baldintza betetzeko erabili ziren argitalpenak. Gainera, zuzendari zientifikoaren aldeko txostena izan beharko du.

Onuraduna alde aurretik kontratatuta egon bada, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 22. artikulua arabera, modalitate horretako kontratu guztien gehieneko iraupena 5 urtetakoa izango da.

Honez gainera, europar batasunetik kanpoko atzerriko hiritarren kasuan, luzapena gauzatuko bada, kasuan kasuko lan baimenak indarrean egon beharko dira.

2.5. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

2.6. Ikerkuntzaren arloko errektoreordeak kontratuaren eteteko baimena eman ahal izango dio interesatuari sei hilabeteren gehieneko eperako, interesatuak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu; hau da, kontratua ezingo da luzatu, eta erabakian ezarritako mugaeguna heltzean amaituko da. Kontratuaren etenaldian zehar baja emango da gizarte segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

2.7. Deialdi honen baitan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko ordainsari gordina, UPV/EHUk kategoria honetan lanaldi osoko arduraldian ari den pertsonalari ezarritako diona izango da.

2.8. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUren artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

3. OINARRIA. PERTSONA ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkezten denean**:

3.1. ***Doktore tituluaren jabe izatea edo 6 hilabete naturalen epean lortzeko modua izatea.***

Doktore tituluaren jabe ez balitz, agiri bat aurkeztu behar da tesia inskribaturik duen doktorego programaren koordinatzaileak eta tesiko zuzendariak sinaturik, adieraziz eskatzailea titulua 6 hilabete naturalen epean lortzeko moduan dagoela.

Atzerriko unibertsitateetan lortutako doktore tituluak homologatu egin behar dira kasuan kasuko espainiar tituluarekin parekatuz..

Lan kontratua formalizatzerakoan egiaztatuko da doktore titulua badela eta, titulua atzerriko zentroetan lortutakoa bada, hura homologatuta dagoela.

3.2. Gainera, ezin dira hiru urte baino gehiago iragan lehenengo doktoregoa lortu egin zeneko datatik eskaerak aurkezteko azken egunera bitartean.

Doktoregoa lortu zeneko eguntzat hartuko da doktorego tesia irakurri eta onartutako eguna. Aipatu epea kontatzerakoan ez dira kontutan hartuko Gizarte Segurantzako erregimen orokorrari jarraiki hartutako amatasun edo aitatasunagatiko atsedenaldirik, gaixotasun larriagatik edo istripuagatik aldian; betiere, medikuak emandako bajak hiru hilabetetatik gorakoa izan behar du. ZTBLren 22. artikuluko modalitatean kontratatuta izandako epeak ere deskontatuko dira.

3.3. Proposatzen den zuzendari zientifikoari dagokion ***ikertaldearen bermea izan behar du.***

3.4. ***CNEAI-k kasuan kasuko jakintza arlorako ezarritako irizpideen arabera bi ekarpenen egiletza edo egile-kidetza egiaztatu beharko dute.*** Argitalpenen kasuan, aski izango da aldizkariak adierazitako onespena. Doktorego tesia edo argitaletxeren batek plazaratutako doktorego tesia ez dira kontuan hartuko kasu honetan.

3.5. ***Doktorego ondoko laguntzarik edo UPV/EHUko doktoreentzako hobekuntza laguntzarik jaso ez izana***, doktore berriak doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte kontratatutako UPV/EHUren deialdiari legezkiokkeenak salbuetsita. Bateragarria izango da kontratu biak aldi berean izatea.

3.6. Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko ***14/2011 legearen 22. artikulua*** ***artezten duen kontratu modalitatean, 3 urtetatik gorako epean ez UPV/EHUk ez beste edozein entitatek kontratatu ez izana.***

3.7. Pertsona bakoitzak eskari bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.

4. OINARRIA. ESKARIA BERMATZEN DUEN ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BALDINTZAK

4.1. *UPV/EHUrekiko lotura funtzionarial zein estatutu edo lan kontratuaren bidezkoa izan behar du*, eskaria aurkezteko unean eta laguntzaren iraunaldi osoan zehar.

4.2. *Gutxienez hiru seiurteko edo seiurteko bizi bat izatea (azken 6 urteetan lortutakoa), CNEAik emana edo ebaluazio positibo baliokidea*, irakasle ez-iraunkorren zat antzeko ebaluazio agentzia egiaztatu batek emana.

Salbuespenez, Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikerkuntza jardueraren ebaluazioa gestionatuko du xede horretarako kontratatutako agentzia baten bidez, norbere kontratuaren izaerarengatik CNEAren seiurtekoak eskuratzeko urteroko deialdira aurkezterik ez duten zuzendariak parte hartzeko aukera izan dezaten errazte aldera.

4.3. *Eskaria aurkezten deneko unetik bertatik eskaria bera bermatzen duen ikertaldeko kide izan behar da*.

4.4. Zuzendari bakoitza deialdi honetako eskari bakar batean agertu ahal izango da.

5. OINARRIA. ESKARIA BERMATZEN DUEN IKERTALDEAREN BALDINTZAK

5.1. Ikertalde gisa aitortua izan behar da ondoko **deialdi hauetako** batean:

a. Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldearen jardueretarako diru laguntzak (Eusko Jaurlaritzaren ikertalde finkatuen deialdia).

b. UPV/EHUko ikertaldeetarako laguntzak emateko deialdietako batean eta eskaria egiterakoan finantzaketarik duena, barne izaki UPV/EHUn ikerkuntzan jarduteko 2020ko laguntza deialdiaren II. modalitatekoak.

5.2. Eskaria egiterakoan finantzaketa izan behar da, halaxe ulertuta ikertaldearen jarduerak espresuki finantzatzen dituzten deialdietako edozeinetan lortutakoa.

6. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

6.1. Eskubidea dute txertatzen direneko adskripzio sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko.

6.2. Zeregin osagarriak egin ahal izango dituzte proposatutako ikerketa-jarduerarekin erlazionatutako irakaskuntza lanetan (gehienez 80 ordu urtean), dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko araudiari lotuta. Zeregin horietan inoiz ezin izango dute irakasgaien arduradun izan, probak egin edo ikasleak ebaluatu.

6.3. Onuradunek unibertsitateko Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIker) erabili eta baliatzeko bermea izango dute, bai eta bere baitan hartzen dituen ikerketa taldearen azpiegiturak eta materiala ere.

6.4. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

7. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

7.1. Esleitutako UPV/EHUko sail, institutu edo ikergunean deialdi honetako 15.3. oinarrian ezarritako epean sartzea.

7.2. Atxikitako sail edo institutuaren funtzionamendurako arauak bete beharko dituzte, bai arduraldiari dagokionez, bai eginkizunei dagokienez, bai eta ordutegi eta oporrei dagokienez ere.

7.3. Beren ikerketa-lana atxikitako sailean edo institutuan egitea.

7.4. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte ikerkuntzaren gestiorako zuzendaritzak (aurrerantzean IGZ) edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

7.5. Irakasle eta ikertzaileen arloko errektoreordetzari gutxien dela 10 lanegun lehenago jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diotela, edo deialdiaren helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Deialdi honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

7.6. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean egindako lanak sinatzean Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekiko atxikipenaren aipamena egin beharko da.

Era berean, UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ikertzaileak espezializatzeko ematen dituen kontratazioen deialdia aipatu beharko da kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan, eskerrak emateko atalean.

7.7. Eskumena duten organoek egin ditzaketen finantza froga eta kontrolak betetzea eta eskatutako informazio guztia ematea, aipatutako ekintza guztiak gauzatzekoan.

7.8. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa-lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitortpenari betiere eutsiz.

7.9. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeko deialdiko arauak errespetatzea dakar, bai eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta atxikitze sail eta institutuek, dauzkaten eskumenei jarraiki, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere.

7.10. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

8. OINARRIA. ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BETEBEHARRAK

8.1. Zuzendari zientifikoaren betebeharra izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean arduradun gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote proposatutako ikerketa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

8.2. Prestakuntza programaren garapen egokia zaindu beharko dute, eta ikerkuntzarekin nahiz ikerkuntza egiteko behar den prestakuntzarekin zerikusirik ez daukaten jarduerak eragotzi beharko dituzte.

8.3. Ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren lana behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea. Kontratututako ikertzaileen eskura jartzea lana behar bezala egiteko behar dituzten instalazioak eta baliabide materialak, eta adskripzio sail, institutu edo ikastegian antzeko kategoria duten langileen eskubide eta prestazioak dituztela bermatzea.

8.4. Inork laguntzari uko egiten badio, edo laguntzaren bat eteten bada, edo laguntzaren bat eman zeneko egoera aldatzen bada, horren berri ematea IGZri, gehienez 10 laneguneko epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik hasita.

8.5. Kontratua jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZk edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

8.6. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak betetzea.

9. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIOAK

9.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitortpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko legeria bete: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa, eta datu pertsonalak babestearen arloan indarrean den arau multzoa.
- Kasuan kasuko Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

9.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin espermentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko arautegia bete (53/2013 ED).
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, aldeztetik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.). Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

9.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhertasun eta informazio printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo horretako indarreko arautegia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

9.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.).

9.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

10. OINARRIA. ESKARIEN EDUKIA

10.1. Eskabideak VRIn webgunean eskuragarri dauden eredu normalizatuen bidez bete beharko dira (<http://www.ikerkuntza.ehu.es>), eta eskuzko sinadura originalarekin edo digitalarekin aurkeztu beharko dira, harrera-taldeko ikertzaile nagusiaren ziurtagiri elektronikoaren bidez. Eskaria egiteko formularioa eskariaren zati eta ataltzat hartuko da, eskariaren gutxieneko edukia izanik, zuzendu ezin izango dena. Hurrengo oinarrian deskribatutako bideren bat erabiliz aurkeztuko ez balitz, hautagaia ebaluazio prozesutik kanpo geratuko da.

10.2. Eskaria egiteko formularioaz batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da. Dokumentu guztiak oro PDF formatuan aurkeztuko dira:

- Eskaera orria.***
- Eskatzailearen curriculum vitae.*** Dokumentu hau ingelesez aurkeztu ahal izango da Ekonomia, Industria eta Lehiakortasunaren ministerioaren ohiko formatuan. Txantiloia IAEn webgunetik jaitsi ahal da.
- Doktore titulua.*** Ikasketak atzerrian eginda izanez gero, dokumentazioari gaztelaniazko edo ingelesezko itzulpena gehitu behar zaio. Tesia defendatu gabe izanik, agiri bat aurkeztu beharko da tesia inskribaturik duen doktorego programaren koordinatzaileak eta tesiko zuzendariak sinaturik, adieraziz eskatzailea titulua 6 hilabete naturalen epean lortzeko moduan dagoela. Nolanahi ere, titulua agertu beharko da kontratua sinatzerakoan.
- NAN, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia.***
- Europar Batasuneko herritarrak ez diren eskatzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute laguntza ebatzen denetik hiru hilabeteren epean gehienez,*** Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Legean ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan.
- Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria.*** Ez da onartuko ziurtagiririk, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero lortu badira. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan, eskatzaileek norberari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

g. Ezgaitasunik duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartuko diren pertsonak **ziurtagiria** aurkeztu beharko dute **% 33ko ezgaitasuna edo handiagoa egiaztatzeko**.

Eskabidea UPV/EHUko erregistro bulegoetan edo posta bulego batean paperean aurkeztuz gero, 10.2 atalean aipatutako dokumentazioa CD edo pendrive batean aurkeztu beharko da. Gailu hori dagokion bulegoan entregatu beharko da, eskaera inprimakiarekin batera.

Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da balioetsiko atal honetan. Beraz, ez da dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharrik izango, eskatzaileen merezimenduak egiaztatzeko.

10.3. Eskatzaileak UPV/EHUren edozein hizkuntza ofizialetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango du dokumentazioa, CV izan ezik, ezinbestean ingelesez aurkeztuko behar baita.

Eskariak kanpoko prozesu baten bidez balioetsiko da Ikerkuntzarako Estatu Agentzia, Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatala (lehengo ANEP) baliatuz, euskaraz ez dakien pertsonalak eginga. IAE-k UPV/EHUren Euskara Zerbitzuari aginduko dio euskaraz aurkeztutako eskariak gaztelaniara edo ingelesera itzultzea. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoz helaraziko zaio eskatzaileari, eskariak adierazitako helbide elektronikoen bidez.

Bost egunen epea izango du itzulpena berrikusi eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztatzea. Epe hori iraganik, ulertuko da eskatzailea ados dagoela itzulpenarekin.

11. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidaliko zaizkio. Dokumentazioa aurkez daiteke UPV/EHUren erregistro bulegoetan edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

COVID 19k eragindako osasun krisiak eragindako ezohiko egoera dela eta, eskaera, ahal dela, UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa dagoen Erregistro Elektronikoen bidez egingo da. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordea aukeratuko da hartzaile gisa eta eskatutako dokumentazio gehigarria erantsiko da ([https://egoitza.ehu.eus/egoitza/erregistro? LangId = eu](https://egoitza.ehu.eus/egoitza/erregistro?LangId=eu)).

Erregistro elektronikoa erabiltzeko behar diren baliabide teknikoak ez badaude (ziurtagiri digitalik ez izatea, adibidez), eskabidea eta dokumentazio osagarria onartuko dira, eta pre_postdoc.dgj@ehu.eus helbide elektronikora bidaliko dira. Posta elektronikoa erabiliz gero, ezinbestekoa izango da eskabidearen eta dokumentazio osagarriaren hartu agiria lortzea, bai eta posta elektronikoz ere, epearen barruan aurkeztu izana justifikatzeko. Postako mezuzaren "gaia" atalean: "Doktoreen espezializazioa 2020" agertu beharko da eta eskatzailearen IZEN-DEITURAK. Deialdian ezarritako dokumentazioa eransteko, behar adina mezu bidali ahal izango dira eta horietan guztietan "gaia" atalean adierazitako informazioa adierazi beharko da (kontuan izan UPV/EHUko mezuzaren gehieneko edukiera 10 MB-takoa dela; beraz, bidalitako dokumentazioak gehiago hartzen badu, mezua ez da jasoko).

Ez da gomendatzen atal honen hasieran adierazitako UPV/EHUko erregistro bulegoak eta posta bulegoak erabiltzea. Hala ere, erregistro bulegoak erabiliz gero, honako esteka honetan kontsultatu ahal izango dira helbideak eta jendaurreko ordutegiak: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra_ordutegia?zx=mzdrejo4lxcj.

Posta bulegoak erabiltzekotan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskaeraren lehenengo orria zigitatuko badu. Ondoren, dokumentazio osoa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Ikerketako Deialdien Atala
Errektoretzaren eraikina
Sarriena Auzoa, z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

12. OINARRIA. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskariak aurkezteko epeak 30 egun natural izango ditu, honako deialdi hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzaren web gunean argitaratuko denetik kontatzen hasita.

13. OINARRIA. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Diru laguntzak esleitzeko alderdi hauek hartuko dira kontuan:

1. Eskatzailearen curriculuma (0-50 puntu).
 - a. Ekoizpen zientifiko-teknologikoa (15 puntu).
 - b. Doktore tesia (10 puntu).
 - c. I+G proiektu eta kontratueta izandako parte hartzea (10 puntu).
 - d. Mugikortasuna (5 puntu).
 - e. Bestelako merezimenduak (10 puntu).
2. Ikerkuntza programaren interes zientifikoa eta kalitatea (0-25 puntu).
 - a. Ikertu beharreko gaiaren aurrekariaren eta egungo egoeraren analisiaren kalitatea eta bibliografia (10 puntu).
 - b. Ikerketaren helburu orokorren garrantzia (10 puntu).
 - c. Metodologiaren eta egin beharreko ikerketa jardunaren egokitasuna (5 puntu).
3. Ikerketaren onurak, gizarte inpaktua, zabalkundea eta emaitzen transmisioa (0-20 puntu).
4. Euskararen jakite maila (0-5 puntu).

Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu
- Ez da balioetsiko adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzetarako Erreferentziarako Europako Esparru Komuneke mailekin parekatzeko dena).

14. OINARRIA. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

14.1. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, IGZk aurkeztutako eskariak aztertuko ditu. Azterketa hau amaitu eta gero, IAEk bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskaeren zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak. Tramite hau egiteko, hilabeteko epea izango du, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero kontaktzen hasita.

14.2. Okerren zuzenketa

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta gero, eskatzaileek 10 egun balioduneko epea izango dute eskatu zaizkion atalak osatu edo zuzentzeko, halakorik eskatu bazaio.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskaerak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerren zuzenketak aurkeztu beharko dira 11. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita.

14.3. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda

Agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzizat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak. Behin betiko zerrenda 10 egun baliodunen epean argitaratuko da okerrak zuzentzeko epea amaitu eta gero kontaktzen hasita.

14.4. Ebaluazio fasea

Hamairugarren oinarrian deskribatu diren ebaluazio irizpideen balioespena Ikerkuntzarako Estatu Agentzia (lehengo ANEP), Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatalaren bidez, edo ezaugarri beretsuko beste agentzia baten bidez egingo da. Tramite hau bi hilabetetan luzatuko da, gutxienez.

Egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; hark dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko Errektoreordeari eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. Lehenetsi egingo da 13 oinarriaren 1. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.

b. Lehenetsiko da deialdi honetan arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren %a eskariko, arlo bakoitzean).

c. Lehenetsi egingo da 13 oinarriaren 2. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.

14.5. Behin-behineko ebazpena

IGBBk behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAEn webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatutako epean alegazio espresik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

14.6. Behin betiko Ebazpena

Epea hau iraganik, IAEk aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, bertan azter daitezten eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazio onartu zein ezesteko behin betiko ebazpena IAEn webgunean argitaratuko da.

14.7. Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak

Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarritz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan. Horretarako, 2 hilabeteren epea dago, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

15. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

15.1. Behin betiko erabakia jakinarazi eta hamar lanegunetara, kontrataziorako hautatutakoek, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio IAE-ri:

- Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituen.
- Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- Doktore tituluaren fotokopia konpultsatua edo tituluari dagokin homologazio agiria.
- Lanean hasi delako agiria.

Eskatutako agiriak epe barruan eta formaz aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

15.2. Eskaerak onartuta dituzten eta 3.1. oinarriaren arabera titulua homologatu behar duten hautagai atzerritarren kasuan, 15.1. oinarrian ezarritako 10 egunen epea titulua homologatzeko dokumentuan adierazten den egunetik hasiko da zenbatzen.

15.3. IGBB-n 15.1. oinarrian adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo hileko lehenengo egunean, formalizatuko dira kontratuak eta lanean hasiko da sail, institutu edo ikerguneetan. Esleipenduna ez balitz

agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo ez balitz hasiko lanean sail, institutu edo ikergunean, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

15.4. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da eta, hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

15.5. Kontratua sinatu eta lanean hasteko 15.3 oinarrian adierazten den epea atzeratu ahal izango da, gehienez 6 hilabetera, esleipendunak behar bezala arrazoitzen badu eta zuzendariak ontzat hartzen badu eskaria.

16. OINARRIA. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

16.1. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua ez da bateragarria izango beste batekin, honako hauekin izan ezik: Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 9. artikuluan aipatzen diren jarduerak, eta Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 83. artikuluan aipatzen diren erakunde edo pertsonekin egindako lankidetzak kontratuak.

16.2. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUren artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

17. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Deialdi honen bidez kontratatutako langileen ukoen, baje eta gainerako gorabeheren berri tesi zuzendariak edota kontratatutako langileak berak eman behar dio, hori eragin duena gertatu eta hamar lanegunen buruan, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari; jakinarazpenari gehitu behar dizkio, kasuan kasu, dagozkion egiaztapen dokumentuak.

18. OINARRIA. JARRAIPENA

18.1. Deialdi honekin bat etorrira kontratatutako pertsonalak egindako lanaren jarraipen zientifiko eta teknikoa IGZri dagokio, horretarako jarraitu beharreko prozedurak ezarriko dituelarik. Hortaz, egoki leritzekeen organoak, batzordeak eta pertsonal aditua izendatu ahal izango ditu eta egoki leritzekeen informazio osagarria eskatu, kontratua behar bezala burutu den egiaztatze beharko liratekeen jarraipen eta egiaztatze egitateak buru ditzaten.

18.2. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak kontratuaren baliatzeko beharko liratekeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, IGZk edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

Ikertzailea atxikitako ikertaldeko ikertzaile nagusiak ados egon behar du txostenekin. Gainera, txostenarekin batera egindako lanaren deskribapen zehatza aurkeztu behar da eta zer helburu lortu diren adierazi.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorrira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2020ko uztailaren 9an.

José Luis Martín González
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación